



## 2025ko ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK: *LASARTE-ORIA ZURE OBJEKTIBOAN*

Lasarte-Oriako Udalak *Lasarte-Oria zure objektiboan* hirugarren argazki lehiaketa jarri du martxan, Lasarte-Oriako herritarrak protagonista izan daitezen 2025ko udal egutegiaren diseinuan. Egutegi hori gure udalerrriaren erakusgarri izatea nahi dugu, argazki-kameraren edo mugikorraren objektiboen bidez.

Horregatik, herritarrak herrian paseatzera gonbidatzen ditugu bizitzaren, txoko horren edo hain gustuko duten urteko une horren argazkiak ateraz, egutegi batean islatzeko modukoak iruditzen bazaizkio, jakina. Argazkiaren egileak gainerako bizilagunekin argazki bat parteka dezan nahi dugu, beren etxeetan gozatu ahal izateko.

### 1. Parte-hartzaileak

Lehiaketa Lasarte-Orian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako argazkizaleei zuzenduta dago.

### 2. Gaia

Gaia librea da, baina udalerriko guneren bat, herrian egindako jardueraren bat, alegoriaren bat edo Lasarte-Oriako alderdiren bat islatu behar da.

### 3. Irudien formatua

Argazkiak HORIZONTALEAN eta bereizmen handian aurkeztu behar dira, TIFF edo JPEG formatuan, 2 eta 10 MB artean.

Koloretakoak edo zuri-beltzekoak izan daitezke. Argazkiak ezingo dira fotomuntaiak izan. Kolorea eta argitasuna zuzendu ahal izango dira. Zalantzarik izanez gero, epaimahaiak Raw artxiboa eska diezaioke egileari, egiaztatze aldera.

Finkatutako formatua, euskarria edo tamaina errespetatzen ez duten argazkiak ez dira kontuan hartuko, eta zuzenean baztertu egingo dira.

Argazkiek jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ezin izango dira aurretik webgune, sare sozial, aldizkari, egunkari edo beste edozein publizitate-kanpainatan argitaratu. Era berean, ez da onartuko egilearen sinadura edo logotipoa daraman argazkirik.

### 4. Lehiaketan inskribatzea. Argazkiak nola entregatu.

Parte hartzeko, eskaera bat aurkeztuko da (Eskabide Orokorren eredia), izen-abizenak, NANA, helbide osoa, telefonoa eta harremanetarako helbide elektronikoa adierazita. Gainera, aurkezten den argazki-artxiboaren izena eta argazkiarena berbera izan behar dira.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Udal Erregistroaren bidez aurkeztu beharko dituzte lanak. Kasu horretan, euskarri elektronikoa batean aurkeztu beharko dute (pendrive, txartela, etab.), edo udalaren WEBaren bidez.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.



Ez da onartuko indarkeria bultzatzen duen argazkirik, ez eta gai politikoekin, sexu-, genero, arraza edo bestelako bereizkeria sustatzen duen adierazpenik ere.

18 urtetik beherako parte-hartzaileek legezko tutoreen baimena aurkeztu beharko dute.

Pertsonak ageri badira -lehen planoan edo ezagutzeko moduan-, egileak dagokion baimena izan beharko du, eta baimen hori aurkeztu. Bereziki zaindu beharko da agertzen diren pertsonak adingabeak ote diren.

Lasarte-Oriako Udalak ez du bere gain hartzen argazkiaren egileak alderdi hori ez betetzearen erantzukizuna, eta edozein unetan erreklamatu ahal izango du, egokitzen jotzen duen zirkunstantziagatik, egilearen baimena.

## 5. Eskabideak aurkezteko epea

Entregatzeko epea 2024ko urriaren 25era arte egongo da zabalik.

## 6. Sariak

Argazkien egileentzako sariak honako hauek dira:

- Hautatutako argazki bakoitzeko 100 euroko 12 sari ezartzen dira, bat 2025ko egutegiko hilabete bakoitzerako, eta 50 euro gehiago portadarako hautatutako argazkiari.

Sariak proiektuan laguntzen duten Lasarte-Oriako establezimenduetan erabiliko diren erosketa-txarteletan entregatuko dira.

Lehiaketako sarien ordainketa 1.7200.226.06.431.90.2024 kontu-sailaren kontura egingo da (Merkataritzako jarduera soziokulturalen programa).

## 7. Epaimahaia

Sozioekonomiako Batzordeak izendatuko du epaimahaia. Hiru kidek osatuko dute epaimahaia, argazkigintzako eta irudigintzako tokiko profesionalen artean izendatuak, batzordeak proposatuta. Idazkaria udaleko enplegu-teknikaria izango da.

Epaimahai horrek 12 argazki onenak aukeratuko ditu (hilabete bakoitzerako 1), kontuan hartuta argazkien kalitate artistikoa, lanen teknika, lehiaketaren gaiarekin duten lotura eta egutegiko hilabeteekiko egokitasuna, gaien banaketa orekatua bermatuko delarik. Halaber, hautatutako argazkien artean, azalean zein jarriko den adieraziko du.



## 8. Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiak azaroaren 4tik 15era bitartean erabakiko du zeintzuk diren irabazleak, eta epaia 2025ko egutegia jendaurrean aurkeztu baino 10 egun lehenago jakinaraziko da. Halaber, jakinarazi egingo ditu argazki irabazleen izenak eta argazki bakoitzak egutegian ilustratuko duen hilabetea. Edozein arrazoiengatik epaimahaiak egutegirako 12 argazki aukeratu ezean, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko diren argazkiak hornitzeko ahalmena izango du.

## 9. Oinarriak onartzea eta Interneten argitaratzea

Udal Erregistroan eskaera eginda eta argazkiak aurkeztuta, parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute Lasarte-Oriako argazki-lehiaketaren baldintzak erabat onartzen dituztela. Parte-hartze horrek esan nahi du proiektuaren oinarriak eta epaimahaiaren epaia ulertu eta onartzen dituztela, eta hori apelaezina izango da. Gainera, 2025ko udal egutegian argazkiak erabiltzeko baimena ematen dute, baita irudi horiek edo haien zati bat udalaren webgunean erakusteko ere, Udalak antolatzen duen edozein proiektiotan, bai eta lanen edukia zabaltzeko helburuarekin ondoren sor litezkeen beste batzuetan ere.

*Lasarte-Oria zure objektiboan* ekimenaren helburua irabazi-asmorik gabekoa da, eta beraz, irudi horiek ez dute erabilera komertzialik izango. Era berean, Udalak ezin izango dizkio argazkiak pertsona fisiko edo juridiko bati laga, non eta ez den proiektuaren komunikazio-helburuetarako.

## 10. Egilearen adostasuna eta eskubideak

Lasarte-Oriako Udala ez da egile-eskubideen kudeaketaren, argazkietan agertzen diren pertsonen baimenen eta lehiaketara aurkeztutako obretatik erator daitezkeen antzeko gaien erantzule egingo.

Saritutako obrak Lasarte-Oriako Udalaren jabetzakoak izango dira. Nolanahi ere, Udalak egilearen izena adierazi beharko du etorkizunean inprimatuta edo bitarteko digitalen bidez egindako erreprodukzioetan.